

Futbola

# Aldeondo titular, Uria harmailetan

Iruretak Aranburu deialdian sartu du eta ziurrenik bigarren zatian aterako du

**L**ogroñes hartuko du gaur Realak Ligako azkeneko jardunaldian. Ez gipuzkoarrek ez errioxarrek ez dute ezer garrantzizkorik jokoan. Iruretak Aldeondo titular jarriko du eta Uria ez du deialdian sartu ere egin, Lezokoak hilaren 30ean Reala utziko duen arren. Aranburu gaztea bai da goela hamaiseen artean, eta baliteke minutu batzuetan aritzea.

**REALA**

Entrenatzailea: Javier Iruretagoiena

Aulkian: 26 Iglesias, 2 Fuentes, 5 Loren, Aranburu, 21 De Paula

Etxean: Irabazi 11, Berdindu 5, Galdu 4, Golak alde 28, Golak kontra 12

Orokorrean: Postua 8, Puntuak 60 (+2)

Anoeta, 19:00

Lopez Nieto

**LOGROÑES**

Entrenatzailea: Carlos Aimar

Aulkian: Jauregi, 14 Jubera, 19 Baltierra, 27 Yordi, 10 Morales

Kanpoan: Irabazi 3, Berdindu 2, Galdu 15, Golak alde 15, Golak kontra 53

Orokorrean: Postua 22, Puntuak 33 (-51)

**AZKEN EMAITZAK**

|       |     |       |     |       |     |
|-------|-----|-------|-----|-------|-----|
| 90-91 | 2-0 | 92-93 | 3-0 | 94-95 | 6-0 |
| 91-92 | 4-0 | 93-94 | 2-2 | 95-96 | -   |

entrenatzaile euskaldunak. Albiste ona da, merezi du-eta 22 urteko mutilak hasieratik jokatzea; are gehiago lehengo astean gola egin eta gero. Bestetik, Mikel Aranburu erdilaria -18 urte besterik ez du- deialdian sartu du Iruretak. Badira jadanik zenbait aste Realeko entrenamendu guztietan parte hartzen ari dela Aranburu, eta orain iritsi zaio garaia. Albiste ona da. Baina bada albiste txarrik ere; izan ere, jakina den moduan, Jokin Uria lezoarrak hilaren 30ean utziko du Reala, eta klubak urrezko harribitxia jarri zion arren duela aste batzuk, Uriak gaur zeukan azkeneko agurra egiteko posibilitatea. Baina horixe, zeukan,

zereen eta Iruretak ez du deialdirako deitu ere egin. «16 sartu ditut deialdian eta nahiago izan dut Aranburu bezalako gazte bat sartu».

**Irureta: «Niretzat ez da partidu berezia»** • Hamaikakoari dago-kionez, ez daude gauzak batere garbi. Aldeondok hasieratik jokatuko duela segurua da, baita Albertok jokatuko duela ere. Baliteke Juan Gomezek hasieratik jokatzea, Loren arazo fisikoekin ibili baita azken egunetan. Aranburuk, berriz, bigarren zatian minutu batzuetan jokatuko du. Kote Pikabea berriro ezker lateralean ariko da, Agustin Aranzabal lesionatua dagoelako -Gi-

ca Craioveanu, Joaquim Yaw, Mutiu, Javier De Pedro, Luis Perez eta Roberto Olabe bezala- eta Uria ez dagoelako deialdian. Nahiz eta Iruretak bere azkeneko partidua izango duen, ez omen da berezia izango, beste bat baizik. «Nik azkeneko partidu asko izan ditut eta, beraz, hau ere ez da berezia izango. Berezia izango litzateke Europako Kopako final bat, baina hau ez». Jokoan ia ezer egongo ez den arren, entrenatzaileak irabazi egin nahi du. «Alde handiz irabaziz gero, hobeto. Nik beti izan dut irabazteko obsesio hori». Logroñesen Ricardo, Canals eta Ruben Sosa zigortuta daude eta Navarro lesionatuta.

Azkena

• ENEKOITZ ESNAOLA •

Gaur Ligako azkeneko neurketa. Galdu ala irabazi, zortzigarren bukatuko du taldeak. Ez da postu txarra, baina gauzak nola hasi ziren ikusita, uste baino txarragoa. Denboraldi hasiera-hasierako iritziak kontuan hartuta, baina, uste baino hobea. Futboleko kontuak: iaz 63 punturekin zazpigarren bukatu zuen baina UEFarik ez, eta orain (ziurrenik) berriro 63 punturekin bukatuko du, baina ez zazpigarren tokian, zortzigarrenen baizik, eta UEFarik ez. Baina emaitza aldetik Iruretak funtzionatu egin du, nire iritziz. Joko aldetik, aldiz, ez; ez ditugu arratsalde ederrak pasatu Anoeta estadioan. Ea Kraussek hurrengo denboraldian joko ona eta emaitza onak uztartzea lortzen duen. Nahiko genuke. Baina latz kostatuko zaio alemaniarri Iruretaren postuak hobetzea.

Bai, gaur azkeneko norgehiagoka. Eta Iruretak ez du deialdian sartu ere egin Reala utziko duen Uria. «Nahiago izan dut Aranburu bezalako gazte bati aukera eman», zioen atzo Iruretak. Ez du ongi egin entrenatzaile euskaldunak. Oso ondo iruditzen zait Aranburu bezalako mutil gazte bat sartzea deialdian, baina ez Uria deialditik at uztea, Lezokoak, Iruretak bezala, azkeneko partidua baitu Realean. Baten batzuk aipatzeagatik, Imaz, edo Loren, edo Albistegi, edo Mild edo beste edozein utzi besterik ez zuen deialditik kanpo; igoal, gainera, jokalar horiek eskertu eta dena... X

◆ Mikel Aranburu ◆ Realeko erdilaria

## «Hasieratik ez dut jokatuko baina pixka bat aritzearekin nahikoa dut»

**Iruretak deialdian sartu zaitu eta hauxe da lehengo aldian Realeko lehen ekipoko deialdian sartzen zarena. Gustura egon beharko.**

Bai, bai, oso gustura. Hamaseien barruan nago, lehenengo aldian da eta ea minutu batzuetan bada ere jokatuko aukera izaten dudana. Askok gustatuko litzaidake.

**Hasieratik jokatuko al duzu?** Ez, hasieratik ez dut uste jokatuko dudarik. Iruretak asteazkenean esan zidan prest egoteko, igoal minutu batzuetan jokatuko aukera izango nuela Logroñesen kontrako partidu honetan.

**18 urte besterik ez duzu. Oso gazterik iritsi zaizu debutatzeko aukera. Inoiz izan al duzu itxaropen hori?**

Itxaropena beti izaten da lehen ekiporekin entrenatzen ari zarenean. Gainera, ikusiz batzuk lesionatuta-eta daudela, ba lehen taldearekin entrenatzen ari ginen Reala B-kook prest geunden edozein unetan igotzeko gora.



EDURNE KOCH

**Gainera, lehen astelehenean Athleticek irabazi zuenean, pentsatuko zenuen: «Realak ez zeukak UEFara sailkatzerik; beraz...».** Bai, hori ere hala da, deialdian sartzeko posibilitate handiagoak

nituela ikusi nuen Athleticek irabazi eta gero.

**Reala B-n partidu batzutan ordezko izan zara denboraldi honetan, eta hori zela medio, ordezko zinen une haietan espero al zenuen aurten Realarekin debutatzea?**

Iriartek hartu zuenean Reala B-ko kargua, Iriartek esan zidan zenbait partidutan nahiago izango zuela nik baino esperientzia gehixeago duten jokalariek zelairatzea. Baina ni beti lasai egon naiz, gogor entrenatzen segitu dut eta orain hauekin egoteko aukera ailegatu zait. Ea zer kontatzen didan Aldeondok gero hotelean, harekin batera egongo bainaiz gelan (Mikelekin elkarriketa taldea kontzentratuurretik egin genuen). Badakizu, lehengo astean Aitor Aldeondok debuta egin zuen, gola sartu zuen gainera. Nik ez dut gola sartzearekin pentsatzen. Ziurrenik hasieratik ez dut jokatuko baina pixka bat aritzearekin nahikoa dut.

**ESTADIO DE ANOETA ANOETAKO ESTADIOA**

---

EKAINAK 22, IGANDEA, 19,00 ORDUETAN

**D.D. LOGROÑES**

**REAL SOCIEDAD DE FUTBOL**

PUBLIKOARI SALMENTA: ANOETAKO ESTADIOAN

TRENBIDETIK GERTUENEKO LEHIATILAN

- Ostirala, 17etatik 20etara.

- Larunbata, 11etatik 13etara eta 17etatik 20etara.

- Igandea, 11etatik 13etara.

Igandean 1. lehiatila bakarrik zabalduko da 17,30etatik aurrera. Ohizko saltoki laguntzaileetan ere gauzatuko da salmenta.

**SALNEURRIAK**

Tribuna Nagusia Goikoa.....5.000

Tribuna Ekialde Goikoa eta Anfiteatroa.....4.500

Tribuna Nagusia Behekoa Erdi-Aldekoa.....4.500

Tribuna Ekialde Behekoa Erdi-Aldekoa.....4.000

Tribuna Ekialde Behekoa Aldeko Iparra.....3.500

Tribuna Iparralde Behekoa.....2.500

Elbarriak, gurrpil-aulkiz.....2.000

Haurrak (14 urte arte) Trib. Goikoan heldu batek lagunduz 1.400

Haurrak (14 urte arte) Trib. Behekoan heldu batek lagunduz 1.100

Haurrak (14 urte arte) Tribuna Behekoan.....700

**BAZKIDEAK:**

- HILABETEKOAK: APIRILA - MAIATZA - EKAINAKO DIRUAGIRI TXARTELAZ

- EPEKAKOAK: 1997ko 2. EPEAREN TXARTELAZ

- URTE OSOKOAK: 1997ko TXARTELAZ

GONBIDAPEN PASEAK TRUKATU AHAL IZANGO DIRA IGANDEAN 18,15ETATIK AURRERA 4. LEHIATILAN (Belodromotik gertuenekoa)

---

**ROVER**

VEHICULO OFICIAL DE LA REAL SOCIEDAD